GARRAITZ KIROL TALDEA

lekeitioko udala

LEKEITIOKO XXI. IGERIKETA ZEHARKALDIA

2018/06/30 – 18:00 / Distantzia: 1900 m

Izen-ematea: www.sailkapenak.com

Norbere txiparekin: 16 € - Txipa alokairuan: 19 €

Informazioa: 630680187 – garraitz@garraitz.com

Izen-emate epeak: 2018/04/03– 2017/06/29
Kupoa: 500 pertsona

Dutxak eta arropazaindegi zerbitzua izango dira partehartzaileentzat

Kategoriak:

- Beteranoak: 1963 - 1949
- Master +: 1973 – 1964
- Masterrak: 1983 – 1974
- Seniorrak: 2003 – 1984

Gazteen kategoriak:

- Haurrak: 2007 – 2004 (Distantzia: 600 m) - 5 €
- Kimuak: 2008 – 2009 (Distantzia: 200 m) - 5 €

GARRAITZ KIROL TALDEA

lekeitioko udala

ARAUDIA/INFORMAZIOA

Hurrengo azaltzen diren arau guztiak bete beharko dira Lekeitioko 21. Kilin Kala Zeharkaldian. Zalantzarik izanez gero antolatzaileen iritzia eta erabakia onartuko da. Partaideek arau guztiak ontzat ematen dituzte izen-ematea egitean.

TXANO, TXIP ETA KAMISETA BILKETA
Txano, txip eta kamisetak proba egunean jaso ahal izango dita 16:30etatik aurrera. Isuntza hondartzako sarreran edo enparantzako kioskoan. Horretarako NANa aurkeztu beharko du.

INSKRIPZIOAK (www.sailkapenak.com)
Inskripzioak pertsonalak eta transferiezinak dira, hortaz ezingo da beste partaide bat etorri proban parte-hartzera inskripzioa egin duenaren ordez.

NEOPRENOA
Berez proba neopreno barik egin beharko zen, baina neoprenoa onartua dago, betiere sarietara aukerarik izan gabe. ***Sailkapenean ere ez dira agertuko*** *(txipik gabe bete beharko dute proba).*

ADINGABEKOAK
Partaidetza pertsona guztiei irekita dago, betiere proba datan (urtean) 15urte betetzen badute. 15 eta 18 urte bitartekoek guraso edo tutoren baimena aurkeztu beharko dute txipa hartzeko unean edo korreoz garraitz@garraitz.com *helbidera bidaliz.*

GAITASUN FISIKO MUGATUAK
Gaitasun fisiko mugatua eta igerialdian parte hartuko dutenek Garraitz Kirol Taldekoekin harremanetan jartzea eskatzen dizuegu (garraitz@garraitz.com) horrela antolakuntzak kontuan hartuko eta laguntza eskeiniko lioke.

GAINDITU BEHARREKO DENBORAK
Antolatzaileek araudian jarritako denbora-muga ez dutenek gainditzen proba utzi beharko dute.

SAILKAPENAK ETA GARAIKURREN BANAKETA
Proba amaitzean, 19:45 aldera banatuko dira, herriko enparantzan (Kioskoan). Sailkapen orokor bat eta kategoria eta sexuaren araberako sailkapenak egingo dira. Saria probaren irabazleari, gizon eta emakumezko kategorian. Kategoria eta sexuaren araberako sailkatutako lehenak garaikurrak izango dute.

ARGITARATZEA
Probako argazkiak ondorengo webgunean argitaratuko dira: www.sailkapenak.com eta www.festak.com

ARROPA GORDETZEA: 17:00 – 19:30

EL CORREO BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia FBN/BIF FEDERACIÓN BIZKAINA DE NATACIÓN DANOBAT BIZKAIA BIZKAIKO TRIATLOI FEDERAZIOA FEDERACIÓN VIZCAINA DE TRIATLÓN

GARRAITZ KIROL TALDEA

lekeitioko udala

LESIO EDO EZINTASUNA

Lesiogatik edo beste pisuko arrazoiren bategatik ezin baduzu parte-hartu eta izen-ematea ezeztatu nahi bada 5 €ko erretentzioa izango du prezioaren gainean. Ezeztapena egiteko epe muga ekainak 15a da, eta prozesu hautetarako antolakuntzarekin harremanetan jarri beharko da. Azken orduko lesioa bada ekainak 15aren ondoren, itzulpena onartuko da medikuaren ziurtagiria aurkeztuz. Tramite hauetarako antolakuntzarekin jarri beharko zara harremanetan. garraitz@garraitz.com

PROBA BERTAN BEHERA GERATZEA

Antolatzaileak ibilbidea aldatzeko, irteera ordua aldatzeko edo proba beste egun batean egiteko eskubidea izango du. Proba bertan behera geratzen bada, izenemateagatik ordaindutakoa ez da itzuliko.

ZIGORRAK

Antolakuntzak edozein zigor jarri ahal izango du, arlo guztietan.

PARTAIDEEN DATUEN ERABILPENA

Proba honetan izena ematean, partaideak baimena ematen dio antolakuntzari bere izena eta argazkiak antolakuntzarekin zerikusia duten komunikabideetan erabiltzeko denbora muga gabe.
Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoaren arabera, partaideak probaren antolakuntza, kudeaketa eta garapenerako beharrezkoak diren datu pertsonalak erabiltzea baimentzen du proba honetan izen ematearekin batera.

AZKEN AIPAMENA

Antolakuntzak ohartarazten du proba honek itsas zeharkaldiek dauzkaten arrisku guztiak dituela, hori dela eta, prestakuntza egokia izatea eskatzen da eta baita osasun egoera zuzena. Beraz, duintasunez bukatzeko gai ez direnek izena ez emateko aholkatzen da. Antolakuntza libre geratzen da zeharkaldiak partehartzaileei eragin diezaiokeen kalte eta erantzunkizunetatik, beraiek izanik izena ematearekoan bere buruaren arduradun.

EL CORREO BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia FBN/BIF FEDERACIÓN BIZKAINA DE NATACIÓN DANOBAT BIZKAIA BIZKAIKO TRIATLOI FEDERAZIOA FEDERACIÓN VIZCAINA DE TRIATLÓN

GARRAITZ KIROL TALDEA

lekeitioko udala

Ibilbidea:

